

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Ezkontzak antolatzen eta planifikatzen dituen enpresa garen aldetik, askotariko baliabide funtzionalak ditugu, ezinbestekoak gure lana eraginkortasunez egiteko eta gure bezeroei esperientzia ahaztezinak eskaintzeko. Baliabide horien artean, fisikoak eta intelektualak desberdindu ditzakegu:

7.1. BALIABIDE FISIKOAK

Baliabide fisikoak funtsezkoak dira negozioaren funtzionamendurako, beharrezkoak diren elementu ukigarriak hartzen baitituzte, hala nola instalazioak, lokala eta materialak.

- **Lokala:** Leioan kokatuta dagoen lokal bat baliagarria izango da negozioa kokatzeko. Lokala ez da oso handia, soilik 60m² ditu, baina gure zerbitzua aurrera eramateko nahikoa da. Beharko dugun materiala ez da oso handia izango, eta ondorioz, lokalean gordetzeko leku soberan dugu. Ezkontzarako egunean erabiliko ditugu material handiagoak edo zehatzagoak, alokatuko ditugu ezkontza egunean, beraz hauek ez ditugu biltegiratu beharko.
https://docs.google.com/document/d/1CuMIuMGfrx01BFE2WnFGS-uRuOGQYvDg4z5d5yYqeSM/edit?usp=drive_link

- **5 ordenagailu:** Ordenagailu batzuk erabili beharko ditugu webgunea eta galdetegia antolatzeko eta mantenimendua egin ahal izateko agenda. Hauek ez ditugu erosiko, bakoitzak gure etxean ordenagailu pertsonala dugulako, eta hauek erabiliko ditugu.

- **Altzariak:** Alokatu dugun lokalak altzari batzuk ditu, baina guk ez ditugu hauek erabiliko, gure altzari propioak erabiltzea erabaki egin dugu. Horretarako, berriak erosi beharko ditugu. Lokalarako 3 mahai eta 9 aulki erosi beharko ditugu. Mahai bat eta 4 aulki bezeroarekin hitz egiteko eta gauzak adosteko erabiliko dugu. Eta beste 2 mahaiak eta 5 aulkiak, ordenagailuekin lan egiteko, eta gure dekorazioak diseinatzeko eta adosteko erabiliko ditugu. Eta itxarongelan sofa bat bi plazekin, eta zenbait altzairi gauzak gorde ahal izateko.

- **Interneta:** Gure lokalean Interneta asko erabiliko dugu ordenagailua erabiltzeko, eta horretarako, zerbitzu bat kontratatu dugu internet sarea eta mugikor lineak sartzen dituen.



7.2. GIZA BALIABIDEAK:

Gure enpresako bazkide guztiak funtsezkoak izango dira enpresaren helburuak lortzeko, lehen azaldu dugun moduan (sarreran) ez dugulako langilerik kontratatuko gure jarduera aurrera eraman ahal izateko.

Gure enpresan egin beharreko lanak hauek dira: arreta telefonoari erantzutea, informatika eta weborria eguneratzea, hornitzaileekin lan egitea ofertak bilatzen, kartelak, flyerrak, ospakizunerako gonbidapenak diseinatzen, ezkontza egunean dena dekoratzea, lokaleko garbiketa eta harreta zuzeneko zerbitzuak (bezeroekin hitzorduak adostatzea lokalean, ezkontza antolatu ahal izateko).

7.3. FINANTZIAZIO BALIABIDEA

Enpresa bat sortu ahal izateko finantzaketa bat eduki behar ditugu. Kapitala lortu behar dugu enpresa aurrera eraman ahal izateko. Eusko Jaurlaritzak laguntzak emango dizkigu enpresa martxan jartzeko. Hemen dago emango ditugun laguntza motak:

https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2024/entap_2024/web01-tramite/es/

Diru-laguntza hau aparte, beste diru laguntza bat jasotzen saiatuko gara ere: Bizkaiko Foru Aldundiak, enpresa berritzaile bat sortzeagatik gutxienez 5.000€-rekin subentzionatuko du eta enpresa sortu dugun pertsonak bost garenez, pertsona bakoitzagatik 2.000€ eman ahal izango digute.

Aurreko beste urte askotan hau egin dute eta aurten diru prestazio hauek jasotzea komeni zaigu.

<https://www.bizkaia.eus/home2/archivos/DPT08/Temas/Empleo.>

Ere, diru-laguntzak bilatu genituen gaztenpresan, baina oraintxe bertan aktiboak dauden diru-laguntzak bakarrik Arabakoak eta Gipuzkoakoak dira.

Eta azkenik, mailegu bat eskatuko dugu bakuari, 120.000€koa. Eta mailegu honen %10 ordainduko dugu, diru-laguntzekin. Jakiteko gero zenbateko inetresak bueltatu beharko genituzke gutxi gora behera, Santanderreko bankuko maileguen simuladorean sartu egin gara. Ez digu utzi 100.000€ko mailegu bat baino handiagoa jartzen mailegu pertsonala delako, baina simuladorea balio izan zaigu interesa hobetu ulertzeko, eta zenbat diru bueltatu behar dugun ideia bat izateko. Mailegu pertsonala dela eta baldintza txikiagoak daukagu, enpresaren mailegua bagenuen baldintza hobeagoak lor genezakegu.

Hemen duzue gure maileguaren kopia bat: <https://drive.google.com/file/d>

Eta hemendik atera egin dugu informazioa: <https://www.bancosantander.es>

